

## OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Araua osoa eta eguneratua jasotzen da bertan.

### **5/2005 FORU DEKRETUA, urtarrilaren 25ekoa, albitari pribatuei animalia txikientzat gaitutako albitarien kalifikazioa emateko prozedura arautzen duena.**

#### SARRERA

1. artikulua. Hartzaileak.
2. artikulua. Eskakerak aurkeztea.
3. artikulua. Gaikuntza.

#### AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehena  
Bigarrena

#### BOG 3 Otsaila 2005

8/2003 Legeak, Abere Osasunarenak, 3.23 artikuluan, albitari baimendunaren edo gaituaren figura ezartzen du.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren 101/2004 Dekretuak, ekainaren 1ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko arauak ezartzen ditu, eta lege testu bakar batera biltzen ditu gaiarekin lotutako araudiak, horiek aplikatu behar dituenak ahalik eta argitasun eta ziurtasun handienarekin joka dezan.

Hala, dekretu horretako 2. artikulua ezartzen duenez, txakurrak identifikatuta eta erroldatuta eduki behar dituzte jabeek, eta identifikazioa horretarako gaitutako albitari pribatu batek egin beharko du, besteak beste. Artikulu bereko 3. puntuan xedatzen duenez, Foru Aldundiari eskatu beharko dio gaikuntza hori.

Beste alde batetik, 2004ko irailaren 27ko Aginduak, txakurrak, katuak eta hudoak Europako Erkidego barruan lekualdatzeko pasaporte onartu eta arau komunitarioa egokitzen duenak, dioenez, txakur, katu eta hudoen pasaporte komunitarioa 2004ko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuan zehaztutakoaren arabera gaitutako albitariak eman ahal izango dute.

Halaber, 2000ko irailaren 28ko Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoan animalia hozkariak zaindu eta behatzeko prozedura arautzen du.

Aldi berean, 2004ko apirilaren 27ko 38/2004 Foru Dekretuak, Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzkoak, bere eginkizunen barruan, Abeltzaintzari buruzkoak ezartzen ditu, besteak beste; beraz, Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuari dagokio animalia txikiekin ofizialki jardun nahi duten albitari pribatuei gaitutako albitarien kalifikazioa emateko prozedura ezartzea.

Horregatik, Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuko foru diputatuaren proposamenez, Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bileran hitz egin eta onartu ondoren,

XEDATU DUT

#### **1. artikulua. Hartzaileak.**

Jardunean ari diren albaitariak animalia txikiak identifikatzeko albaitari gaituen kalifikazioa eskatzeko, ondorengo betebeharrak bete behar dituzte:

- Albaitaritzako lizentziatu titulua edukitzea.
- Albaitarien elkargo ofizialen batean kolegiatua egotea.
- Egunean edukitzea Zerga Administrazioarekin eta Gizarte Segurantzarekin bete beharreko obligazio guztiak eta Albaitarien Elkargo Ofizialeko kuotak.
- Identifikazioa egiteko tresneria egokia edukitzea; baliabide hauek gutxienez:
  - Mikrotxipen irakurgailu bat.
  - Ordenagailu pertsonal bat.
  - Inprimagailu bat.
  - Interneteko sarrera banda zabalarekin.

## **2. artikulua. Eskaerak aurkeztea.**

Gaitzeko eskaerak egiteko foru dekretu honekin batera I. Eranskin gisa doan inprimaki ereduia bete behar da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuko Abeltzaintza Zerbitzuan aurkeztu, agiri hauekin batera:

- Albaitaritzako lizentziatu titulua edukitzearen egiaztagiria.
- Albaitarien elkargo ofizialen batean kolegiatua dagoela egiaztatzen duen agiria.
- Zerga Administrazioarekin bete beharreko obligazio guztiak egunean dituela frogatzen duen ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzarekin bete beharreko obligazio guztiak egunean dituela frogatzen duen ziurtagiria.
- Kolegiatua dagoen Albaitarien Elkargo Ofizialeko kuotak egunean dituela frogatzen duen ziurtagiria.
- Identifikazio lana egiteko dauzkan tresnen zerrenda, eta haien ezaugarriak.
- Gaiak berarekin dakartzan lanak -txakurren identifikazioa eta pasaporteak ematea- egiteko lekua edo lekuak.

### **3. artikulua. Gaikuntza.**

**3.1.** Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuak emango du, Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuko diputatuaren Foru Aginduaren bitartez, animalia txikientzat gaitutako albaitarien kalifikazioa, behin egiaztatzen duenean lehen artikuluan eskatutako betebeharrak betetzen dituztela. Hori ebazteko epea hiru hilabetekoa izango da, eskaera aurkeztu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta. Epea amaituta berariazko ebazpenik eman ez badu, gaikuntza emanda dagoela ulertuko da.

**3.2.** Emandako gaikuntzak bostu urteko balioa izango du, hartzaileak hura eskuratzeko betebeharrak betetzen dituen bitartean, eta hari uko egiten ez dion edo desgaitua ez den bitartean.

**3.3.** Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako gaikuntzak Gipuzkoako Lurralde Historikoan jarduteko balioko du, eta gaitutako albaitariari eskumena ematen dio jarraian aipatutako zereginak egiteko, ezartzen diren protokoloei jarraituz, betiere:

- Txakurren identifikazio elektronikoa.
  
- Euskal Autonomia Erkidegoko Abereen Identifikazio Elektronikoaren Erregistro Orokorreko alta, baja eta datuen aldaketa agiriak ematea, txakurrei dagokienez.
  
- Txakurren Osasun Liburuxka eta Identifikazio agiria betetzea, baita ere Euskal Autonomia Erkidegoko Abereen Identifikazio Elektronikoaren Erregistro Orokorrean (aurrerantzean AIERO) izen emateko eskaera.
  
- Animalia txikientzako pasaporte betetzea, Europako Batzordeak 2003ko azaroaren 26ko 2003/803/EE Erabakiaren bidez ezarritakoa, alegia.
  
- Txakur oldarkorren, arriskugarriak izan daitezkeen edo edukitzeko baldintza berezien mende daudenen behaketa eta jarraipena, baita egin beharreko txostenak eta ziurtagiriak egitea ere.
  
- Pertsonen edo beste animalia batzuei inoiz oldartu zaizkien edo ageriko izaera oldarkorra duten txakurren arriskugarritasunari buruzko txostenak egitea.
  
- Txakur bat arriskugarria izan daitekeen animaliatzat jotzeari buruzko txostenak egitea, oinarritzat hartuta haren arraza, gurutzaketa edo ezaugarriak.
  
- Txakurren osasun alderdiei buruzko bestelako ziurtagiriak eta txostenak egitea.
  
- Txertaketa eta tratamendu ofizialak egitea, baita geroan ezar daitezkeen osasun programak ere.
  
- Eusko Jaurlaritzaren 2004ko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuak albaitari gaituentzat ezartzen dituen eginkizun guztiak.

**3.4.** Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuak eskumena dauka albaitariari gaikuntza kentzeko, baldin eta hura eskuratzeko betebeharrak betetzeari uzten badio edota 3.3. artikuluan azaldutako zereginak egiteko ezartzen diren protokoloek jarritako baldintzak betetzen ez baditu. Gaikuntza kentzeko administrazio espedientea ireki behar dio.

### **Amaierako Xedapenak**

***Lehena***

Ahalmena ematen zaio Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuko diputatu andreari foru dekretu honetan xedatutakoa aurrera eraman eta betetzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

***Bigarrena***

Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

**ANIMALI TXIKIEKIN JARDUTEKO ALBAITARI PRIVATUAK GAITZEKO ESKAERA  
SOLICITUD DE HABILITACION DE VETERINARIOS PRIVADOS PARA ACTUACIONES EN  
PEQUEÑOS ANIMALES**

**DATU PERTSONALA / DATOS PERSONALES**

NA / D.N.I \_\_\_\_\_  
 Izen/Abizenak / Nombre y Apellidos \_\_\_\_\_  
 Helbidea / Domicilio \_\_\_\_\_  
 Posta Kodea / Código Postal \_\_\_\_\_ Herria / Localidad \_\_\_\_\_  
 Lurralde historikoa / Territorio Histórico \_\_\_\_\_ Telefonoa / Teléfono \_\_\_\_\_  
 Kopia / fax \_\_\_\_\_ Posta elektronikoa / Correo electrónico \_\_\_\_\_

**IDENTIFIKATU ETA PASAPORTEAK EMATEKO LANAK EGINGO DIREN TOKIAREN DATUAK.  
INDICACION DEL LUGAR DONDE SE EJERCERÁ LA ACTIVIDAD DE LA IDENTIFICACION Y LA  
EMISION DE PASAPORTES**

Helbidea / Domicilio \_\_\_\_\_  
 Posta Kodea / Código Postal \_\_\_\_\_ Herria / Localidad \_\_\_\_\_  
 Lurralde historikoa / Territorio Histórico \_\_\_\_\_ Telefonoa / Teléfono \_\_\_\_\_  
 Kopia / fax \_\_\_\_\_ P. Elektronikoa / email \_\_\_\_\_

**ESKATZEN DU /SOLICITA:**

Animalia txikiak al baitari jarduerako gaitzea, Foru Dekretuan jasotakoari jarraituz. Aitortzen dut aipatutako dekretuan eskatutako baldintzak betetzen ditudala eta animalia txikiak identifikatu eta erregistratzeko behar diren tresnak baditudala.

Se le habilite para las actuaciones veterinarias en pequeños animales de acuerdo con el Decreto Foral. Declaro cumplir los requisitos exigidos en el citado Decreto Foral y disponer de los equipos necesarios para la identificación y registro de dichos animales.

**AGIRIAK/DOCUMENTACIÓN:**

- Albaitaritzako lizentziatu titulua edukitzearen egiaztatzea / Acreditación del título de Licenciado en Veterinaria.
- Elkargo Ofizialen batean kolegiatua dagoela egiaztatzen duen agiria. / Certificado que acredite estar colegiado en algún Colegio Oficial
- Zerga Administrazioarekin bete beharreko obligazio guztiak egunean dituela frogatzen duen ziurtagiria. / Certificado de estar al corriente en el pago de sus obligaciones tributarias
- Gizarte Segurantzarekin bete beharreko obligazio guztiak egunean dituela frogatzen duen ziurtagiria. / Certificado de estar al corriente en el pago de la Seguridad Social
- Kolegiatua dagoen Albaitarien Elkargo Ofizialeko kuotas egunean dituela frogatzen duen ziurtagiria. / Certificado de estar al corriente en el pago de las cuotas al Colegio Oficial de Veterinarios en el que esté colegiado.
- Gaitze eskaerako jarduerak egiteko duen taldearen zerrenda. / Relación del equipo de que dispone para realizar la actividad para la que solicita la habilitación

Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa aurreikusitako ondorioetarako, jakinarazten da inprimaki honetan eskatutako datuak beharrezkoak direla eskaera egiteko eta informatikoki tratatu eta eman ahal izango direla. Datuen ardura Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuarena izango da.

A los efectos previstos en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de Diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, se informa que los datos solicitados en este impreso son necesarios para la tramitación de la solicitud y podrán ser objeto de tratamiento informatizado y cesión. La responsabilidad de los datos corresponde al Departamento para el Desarrollo del Medio Rural.

Eskatzaileek, datuen lagatzaile bezala, Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuaren aurrean aipatutako 15/1999 Legearen III. atalean jasotako informazio, sarbide, zuzenketa eta deuseztapen eskubideak erabiltzeko ahalmena izango dute, datu pertsonalen lagatzaileen eskubideak arautzen duen araudi horretan xedatutakoa eragotzi gabe.

Los solicitantes, como cedentes de los datos podrán ejercer ante el Departamento para el Desarrollo del Medio Rural los derechos de información, acceso, rectificación y cancelación a los que se refiere el Título III de la citada Ley 15/1999, sin perjuicio de lo dispuesto en esta normativa que ampara los derechos como cedentes de los datos de carácter personal.

Lekua eta data: \_\_\_\_\_  
 Lugar y fecha: En \_\_\_\_\_ a \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_

Gipuzkoako Foru Aldundia, Abeltzaintza Zerbitzua / Servicio de Ganadería, Diputación Foral de Gipuzkoa